



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK HILETA-SEKTOREKO ERAGILE BATZUEN AURKAKO ESPEDIENTEA ITXI DU MERKATUA IREKITZEAREN KONPROMISO BATEZ

LEAk itundutako amaieraren bidez espedientea ixtea (zehapenik gabe) onetsi du. Hori dela eta, salatuak behartu egin ditu euren esparruko honetan dautza:ehortzetxe guztiei merkatu irekitzera eta tarifa eta beste merkataritza-baldintzei buruzko informazioa ematera. Horrek mesede egingo die zerbitzu horien erabiltzaileei.

Bilbo, 2016ko otsailaren 1a

Lehiaren Euskal Agintaritzak itundutako amaieraren bidez ondoko espedientea ixtea (zehapenik gabe) onetsi du: Gipuzkoako heriotza-aseguruen agente baten eta ehortzetxe baten aurkako salaketa baten bidez irekitako espedientea. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aurkako jokabideak egiteagatik salatu zirenak hauek izan ziren: Tanatorio del Bidasoa (TABISA) enpresa eta aseguru-enpresa bateko agente bat.

LEAk ikuskapenak egin zituen agentzia batean eta TABISA enpresan eta e-mail batzuen kopiak atzeman zituen. Horien bidez ikusi egin zen lehiatzaileei buruzko merkataritza-informazio nabarmena elkartrukatzen zen aseguru-enpresa bateko agentearen eta TABISA enpresaren artean. Agentea eta bere senideak TABISA enpresaren akziodunak dira. Informazio horretan bazeuden TABISA enpresaren lehiatzaileen tarifak, baita zerbitzuak ehortzetxe horretara desbiderazteko jarduerak ere. Jokabide horiek zerbitzuen erabiltzaileen interesen aurkakoak ziren.

Lehiaren Euskal Agintaritzak itundutako amaieraren bidez espedientea ixtea onetsi du. Itxiera hori salatutakoei ezarritako konpromiso batzuek baldintzatuta dago. Konpromiso horiek merkatua irekitzen diete zerbitzu horiek ematen dituzten enpresa guztiei eta informazio pribilejiatua elkartrukatzea saihesten du, hori eragile zehatz batzuen mesederako baita. Itundutako amaierak, *de facto*, sektoreko lehiaren arazoak konpontzen ditu eta interes orokor, erabiltzaile eta aseguru-enpresentzako eragin positiboak dauzka



Itundutako amaierak enpresak behartzen ditu hileta-zerbitzu guztien prezioak zehaztera. Hori eginez, benetako aukera egongo da aseguru-erabiltzaileek nahiago duten zerbitzua emango dien enpresa aukeratzeko, baita baldintza hobek eskaintzen dituen enpresa aukeratzeko ere. Halaber, erabiltzaileek zehatz-mehatz jakin ahalko dituzte zein diren euren polizek estaltzen dituzten zerbitzuak eta horien prezioak. Erabiltzaileek aukeratu ahalko dute zerbitzu horietatik zein nahi duten jaso. Orobat, bermatu egiten da aseguraturako diru-kopuruaren eta zerbitzuaren benetako kostuaren arteko aldea hildakoaren senideei ematea.

Salatuen konpromisoak honetan dautza: ehorztetxe guztiek aldi berean jasoko dute informazio egoki eta nahikoa erabaki ahal izateko zein preziotan kobratuko dioten zerbitzua aseguru-enpresari. Horrek ehorztetxeen arteko lehia eraginkorra egotea ahalbidetzen du, aseguru-enpresei zerbitzua emateari dagokionez. Aseguru-polizen diru-kopurua ehorztetxeek eskaintako prezioen batez bestekoa erabiliz kalkulatzetik denez, aurreikusteko modukoa da lehia eraginkorrek aseguru-polizen diru-kopurua jaitsiaraztea.

Herritarrentzako prezioak gardenak badira, konparatu ahalko da zenbat balio duten zerbitzuek heriotza-aseguruarekin eta zenbat asegururik gabe. Horrela zerbitzuak kontratatuko dira elementu guztiak kontuan hartuta.

Halaber, aseguru-enpresak exijitzen zuen gutxieneko prezioa ezabatzen da. Horrek prezio baxuagoak eskaintzea herritarrei edo beste enpresa batzuei ahalbidetzen die hileta-enpresei eta, aldi berean, erabiltzaileei ekartzen die onura.

Horrek guztiak merkatuko gardentasuna handitzen du eta heriotza-aseguruak eta horiei lotutako zerbitzuak jakinaren gainean kontratatzea ahalbidetzen die herritarrei.

Lehiaren Euskal Agintaritzza Administrazioiko izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jardura ekonomikoei dagokienez.